

Ebakuntzarik gabe bi urteko bizia izango luke Jeltsinek, sendagileen arabera

Bere osasunak lehendakari izateko gaitasunik ez dio kendu epaileek esan dutenez

Boris Jeltsin Errusiako lehendakariak, hil honen amaieran bihotzeko ebakuntza egin ezean, ez du bi urte baino gehiago iraungo bizirik. Hala adierazi dute bihotzeko gaixotasunetan adituak diren sendagileek, atzo Errusiako Itogi astekari prestigiotsuak argitaratu zuenez.

Agentziak / Mosku

«ERRUSIARREK lan egiteko aukeratu zuten lehendakaria, eta ez boterean egoteko bakarrik», adierazi zion Jeltsinek Itogi astekariari, ebakuntza egiteko erabakiaren zergatiaz galdetuta. Astekariak, ordea, ebakuntzarik gabe denbora gutxi geratzen zaiola azpimarratzen zuen: «Adituak esan dutenez, lehendakariak duen gaitzarekin, ebakuntzarik gabe gaixoaren bizi-esperantza urte eta erditik bi urterakoa da».

Jeltsini koronariografia egin zioten abuztuaren erdialdean Moskuko Kardiologia Zentroan. Astekariaren arabera, azterketa horretan ikusi denez Errusiako lehendakariari «bihotzeko hiru arteriak estutu dizkio esklerosia». Koronariografia da bihotzaren funtzionamenduaren akatsak hobekien aztertzen dituen metodoa. Horregatik, Kardiologia Zentroko sendagileak erabat harrituta geratu ziren orain arte horrelako azterketarik ez ziotelako egin, nahiz eta 1995ean bi aldiz sartu behar izan zuten Moskuko Ospitale Nagusian.



Helmut Kohl eta Boris Jeltsin besarkatuta, kantzeleri alemaniarrek larunbatean Errusiarra egin zuen bidaiari. EPA

Aipatu astekariaren arabera, Rinat Atxkurin sendagileak egingo dio bihotzeko ebakuntza Jeltsini. Sendagile hori Errusiako onena omen da bihotzeko gaixotasunetan, eta besteak beste Viktor Txernomirdin Errusiako lehen ministroari antzeko ebakuntza bat egin zion 1992an.

Jeltsinen osasunak Kremlinen boterea eskuratzeko lehia bizia piztu du. Baina atzo Gadis Gad-

jev Errusiako Auzitegi Kontstituzionaleko epaileak esan zenez, Errusiako lehendakariaren egoeran ez dauka zertan bere botereak bigarrenengo baten esku utzi —Konstituzioaren arabera lehen ministroaren esku—. Dena den, eta lehendakariak bere zereginak beste baten esku uztea erabakiko balu, Txernomirdinek hartu beharko lituzke lehendakari funtzioak, epailearen arabe-

ra. Gadjevek esan zuenez, Konstituzioaren prozedurarik agertzen ez bada ere, botere eskualdegarako Jeltsinek dekretu bat izenpetzea izango litzateke bide egokiena, herriak jekin dezan aginte guneetan zer gertatzen den. Gainera, botere delegatze horren iraupena ezartzea ere komenigarria litzatekeela adierazi zuen epaileak, Interfax agentziari eskaintako elkarrizketan. X

Pederasta sarearen eta hildako politikariaren artean erlazioa dagoela salatu dute egunkariak

Lehen ministrorde ohiaren hilketan erabilitako pistola Liejako ubide batean aurkitu zuten atzo

Agentziak / Donostia

BELGIKAKO egoera politiko, polizial eta judizialak korrupzio giro zakarrean murgildu dira azken egunotan. Galdutako eta aurkitzeaz dauden neskatoak batetik, eta lehen ministrorde ohi baten hilketak —politika arrazoiak medio— bestetik, korrupzio egoera areagotu egin dute Belgikan. Gainera, flandriar egunkari gehienak bi gertakizun hauen artean lotura dagoela salatu dute.

Egunkari gehienek editorial ikaragarriak atera dituzte egoera azaltzeko orduan. Belgika Bogota, Chicago eta Palermo hiriekin parekatzeaz gain, «hau ez da gure Belgika» moduko leloa argitaratu dute egunkariak. Ministro ohi baten kartelaratzeak, «bigarren aldiz hamabost egunetan, emozio une nazionalak bizitzera eramantzen», azaldu dute editorialek.

Izan ere, Belgikako lehen mi-



Cosimo Soladzo, Andre Cools buruzagi sozialistaren ustezko hitzailea, polizia inguratua. BRUNO DEVOGHEL / REUTER

nistrorde ohia hiltzeko erabili zuten pistola Liejako ubide batean atzeman zuten atzo. Bost pertsona atxilotu zituzten asteburuan, Alain Van der Biest es-

kualdeko ministro ohia beste batzuen artean, denak ere Andre Cools lehen ministrorde ohia 1991n Liejan hiltzeaz akusatuta. Hilketaren helburua, nonbait,

Waloniako eskualdean zuten eragin politikoa galtzen ari zirela izan zen.

Honenbestez, neskato gazteen heriotzek eta politikariaren hilketan eragin berri diren aitortzen, Belgikan bizi zen korrupzio giroaren adierazle garbi gisa azaldu dira bertako egunkariak. Korrupzio gunea Waloniako eskualdean zehaztu dute egunkariak, Lieja eta Charleroi hirien eskualdean.

Gainera, asteburuan atxilotutako bost pertsonetako bat udaltzaina zen Grace-Hologne herrian, hain zuzen ere Julie eta Melissa neskatoen gorpuak aurkitu zituzten herrian bertan.

Egoerak biziki aztoratu du Belgikako gizarte osoa. Alberto II.a erregeak eta Jean Luc Dehaene lehen ministro sozial-kristauak zin egin dute ikerketak azkenerraino eramango dituztela. X

laburrean

E E B B

■ Carterrek EEBBen gehiegizko indarkeria kritikatu du

JIMMY CARTER-EK, Estatu Batuetako presidente ohiak, EEBBek eskaintzen duten giza laguntza «zekenegia» dela eta indar militarra «gehiegi» erabiltzen dutela adierazi dio Austriako egunkari bati. «Gure indar militarra bakea lortzeko erabili beharko genuke eta indar politikoa xede politikoentzako», esan zuen Carterrek. Iraki buruz, jasotzen ari den enbargoa altxatu egin beharko litzatekeela uste du Carterrek, «horrek Saddam Husseinen jarrera konstruktiboagoa» ekarriko lukeela. X

BULGARIA

■ Simeon II.a erregea Bulgariara itzuliko da urrian

SAJONIA Coburgetako Simeon II.a erregea Bulgariara itzuliko da urrian egunkari batek atzo jakinarazi zuenez. Espainian bizi da Simeon II.a eta maiatzean 50 urtetan lehen aldiz bidaiatu zuen Bulgariara. Orain, Bulgariara betiko itzultzeko nahia duela azaldu du, beti ere, hiru partzuergo garrantzitsutan dituen negozioak amaitzen dituenean. Itzulera honekin, Simeon II.ak behin izandako tronua berreskuratzeko aukera izango luke. X

KOLONBIA

■ Hegoaldeko nekazariak liskar gehiago sortu dituzte

MILAKA koka landatzailek Armadaren aurkako istilu bizi ziretan hartu zuten parte atzo Morelian, Gobernuaren eta euren ordezkarien arteko elkarritzetak eten egin zirelako. Kolonbiako komunikabideek adierazi zuten. Gertarak, Moreliako 20.000 nekazari Bodoquero ibaiaren zubia zeharkatzen saiatu zirenean hasi ziren. Soldaduek gas negararazlea jaurti zuten. X

P E R U

■ Polizia eta herritarrak galdutako 12 neskatoen bila dabilta

PERUKO Polizia eta Ica herriko herritarrak galdutako 12 neskatoen bila dabilta, pederasta batek Ican lau neskato eta Liman zortzi neskato hil zituen beldur. Hiltzaileak, Nicolas Gutierrezek, dirua eskaintzen zien neskato hauei eta Ica inguruko leku galdutara eramaten zituen. Leku hauetan ari dira miazten galdutako neskatoen gorpuen bila. X